

Begarako basoen berreskurapenerako elkarlan hitzarmena

Begaran 2023ko maiatzaren 12an bildu dira:

- Gorka Artola Alberdi jauna, NA 72581389-E duena eta Begarako Alkatea, Begarako Udalaren ordezkari, P2007900J zenbakia duena eta M^a Concepción Ugalde Izeta NA 15954776-K duena, udaleko idazkariaren laguntzarekin.

- Ainhoa Agirrebeña Zabala, NA 15383142-Y duena eta Kukubaso Basoak Berreskuratzeko Elkartearen ordezkari, G06862965 IFZa duena.

Ainhoa Agirrebeña Zabala andreak, alkatearen aurrean adierazi ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarteak ez daudela estatutuen 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak dirulaguntzak jasotzeko aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

Adierazten dute

Hitzarmen honen helburua da Begarako basoen berreskurapenerako marko estrategiko integral berria ezartzea bertako basoen aldeko politikak garatu, sentsibilizazioa egin eta biodibertsitatea zaintzeko.

Elkartzen dituen lurren zaintza, baso lur publikoen kudeaketa jasangarria, bertako espezieen aldeko politiken sustapena eta, finean, ingurumenaren zaintza bultzatzeko nahia izanik, bi aldeek borondatea azaltzen dute egitasmo hau elkarrekin garatzeko.

Aurrekariak eta testuingurua

Begarako Udalbatzak 2012an onartu zuen "Biodibertsitatearen aldeko konpromisoa", eta bertan hartu zuen herriko natura-guneen kontserbazio-egoera hobetzeko eta babesteko konpromisoa, habitaten kudeaketa hobetuz eta basa-bizitza babesteko beharrezko moldaketak eginez. Horrekin batera, udalerrian biodibertsitatearen ikuspegitik interes gehieneko eremuen egoera hobetzeko zenbait proiektu gauzatu ditu azken hamarkadan (Biodibertsitatea eta ingurumen hezkuntza babesteko San Martzialgo eremua berreskuratzeko proiektua; Pagola- Loidin biodibertsitatea kontserbatzeko eremu publikoa sortzeko proiektua).

Begarako Udalak, lurraren jabetzak lurralde ereduan eta biodibertsitatearen kontserbazioan duen garrantziaz jabeturik, lurra interes publikoaren zerbitzuan jarri behar direla sinesten du. Helburu hori lortzeko bidean, herri-lurra funtsezkoak dira lurraldearen kudeaketa jasangarria eta beste lur zaintza eredu bat sustatzeko, beti ere, biodibertsitatearen babesa eta hobekuntza oinarri hartuta.

Kukubaso irabazi asmorik gabeko elkarteak 2021ean sortu zen eta ordutik hona lurra

lagapenean hartu ditu bertako basoak sustatzeko eta gaiaren inguruko informazioa eskaintzeko baso-jabeei. Era berean, hitzaldiak, auzolanak eta proiektu hezitzaileak garatzeari ekin dio. Honako hauek dira Kukubaso elkartearen helburuak:

1.- Bergarako eta inguruko lurretan dauden bertako basoak kontserbatzea eta berreskuratzea, ekosistema horiei lotzen zaien biodibertsitatea mantentzea landareei eta animaliei babeslekua eskainiz eta errekak osasuntsu mantenduz. Honela, gure bizi kalitatea hobetu eta Bergara bizigarriagoa eraikiko dugu, herri lurren ideia berreskuratuz.

2.- Bergaran eta bere inguruko lurretan dauden bertako basoak eta beste habitat naturalak berreskuratzea eta kontserbatzea, ekosistema hauen baitan gauzatzen den bioaniztasuna hobetzea eta mantentzea.

3.- Bioaniztasunaren kontserbazioan eta defentsan laguntzea, betiere denon on eta ondare unibertsal gisa ulertuta.

4.- Lurraldearen kudeaketa berritzailea ezartzen laguntzea, bertako bioaniztasunaren kontserbazioari lehentasuna emanez.

5.- Bioaniztasuna kontserbatzearen eta haren aitortza bultzatzearen garrantzia gizarteratzea, lehentasunezko kudeaketa publikoko gaia den aldetik.

Horiek kontuan izanik, bi aldeek helburuak interes orokor batean topo egiten dute eta marko orokorra eskainiko duen hitzarmen honetan arlo hauek garatzeko klausulak adostu dira.

Klausulak

Lehena.- Helburu estrategikoak eta eragin eremuak.

Hauek dira hitzarmenaren helburu estrategikoak eta bi aldeek hartzen dute errespetatu eta betetzeko konpromisoa:

- a) Bergarako basoak berreskuratzea eta biziberritzea.
- b) Baso jabeei alternatibak eskaini ahal izateko informazioa helaraztea.
- c) Lurzoruaren kudeaketa jasangarria sustatzea eta sendotzea.
- d) Eragileen arteko lankidetza sustatzea.
- e) Jendartearen sentsibilizatzea garapen eredu jasangarriagoaren alde

Bigarrena.- Basoen Berreskurapenerako Mahaia.

MAHAIAREN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Hitzarmena garatu ahal izateko eta helburu estrategikoak zaintzeko eta elikatzeko, Basoen Berreskurapenerako Mahaia sortuko da bi aldeek ordezkariekin. Kukubasoko bi kidek, Udaleko ingurumen zinegotziak eta ingurumeneko teknikariak osatuko dute mahaia eta udal teknikariak egingo ditu baita Mahaiko idazkari lanak. Noizbehinka, unean uneko beharrei erantzuteko, arloko teknikariek edo herri eragileetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute. Azken hauek hitza izango dute baina botoa emateko eskubiderik ez.

Bergarako Udalaren ordezkaria, edo eskuordetzen duen pertsona, izango da Basoen Berreskurapenerako Mahaiburua.

Idazkariak egingo ditu batzordearen deialdiak, mahaiburuaren aginduz, eta gutxienez



Bergarako
Udala

saioarekiko astebeteko aurrerapenarekin. Deialdia, ahal bada, bide elektronikoz egin beharko da, eta eztabaidatzeko zein erabakiak hartzeko behar diren agiri guztiak izango ditu atxikita.

Basoen Berreskurapenerako Mahaiaren eraketa balioduna izan dadin, kideen gehiengo osoa eta idazkaria bertan egon beharko dira.

Bertaratutako kideen gehiengo soil bidez hartuko ditu mahaiak erabakiak. Berdinketa dagoenean, presidentearen kalitatezko botoak erabakiko du. Mahaikide guztiek hitza eta botoa izango dute. Idazkariak, mahaikidetzat hartu gabe, hitzarekin baina botorik gabe gauzatuko ditu bere eginkizunak.

Idazkariak astebeteko epean prestatuko du akta eta mahaikide guztiei helaraziko die bileran erabakitakoaren berri emanez eta hartutako konpromisoen banaketa zehaztuz.

Eginbeharrekoen artean udalari dagozkionak daudenean, kasuan-kasuan dagokion udal organoari edo departamenduari jakinarazi beharko dio mahaiko idazkariak, erabakirik hartu beharra balego hartzeko edota kudeatzeko.

BILEREN MAIZTASUNA


Basoen Berreskurapenerako Mahaia honako kasu hauetan bildu behar da, gutxienez:

- Hiru hilean behin, ohiko bilera egiteko udaletxean.
- Urte bakoitzaren azaroaren amaiera baino lehen, hitzarmenaren xedea lortzen ari den ala ez baloratzeko eta horren berri emateko eta hurrengo urteko plangintza ezartzeko.
- Hitzarmenaren baldintzak aldatu beharra dakarren aldaketaren bat gertatzen denean.
- Sinatzaile batek eskatzen duenean, batzordearen berezko egitekoekin lotutako gairen bat aztertzeko.

FUNTZIOAK ETA EGITEKOAK

Lur urbanizaezinean Bergarako udalak jabetzan dituen Bergarako Udal lur ez urbanizagarrien kudeaketa planaren lerro estrategikoak eta hitzarmen honetako lehen klausulan jasotako helburu estrategikoak oinarri hartuta, honako funtzio edo egitekoak izango ditu Basoen Berreskurapenerako Mahaiak:

- Bergarako udalerrian garrantzi berezia duten eremuetan biodibertsitatea zaindu eta areagotzeko ekimenak sustatzeko lursailen erosketa urteroko deialdiaren oinarrien finkapenean, jarraipenean eta ebaluazioan aholkularitza ematea udalari.
- Helburu estrategikoak zaindu eta elikatzea.
- Elkarlanerako hitzarmenean jasotako klausulei jarraipena egitea.
- Helburu berberak dituzten Euskal Herriko antzeko proiektuekin saretzea.
- Sortu ahal diren proiektu berriak pentsatu eta bideratzea
- Elkarlanean aritzea herriko beste eragile batzuekin.
- Hitzarmen honek jasotzen duen diru-laguntzaren baitan Basoen Berreskurapenerako Mahaiak zehaztutako urteroko plangintza aurkeztea udalari aurreko urteko azaroaren amaierarako. Plangintza horretan hurrengo urtean burutuko diren ekimen, ekintza eta proiektu ezberdinak jasoko dira bakoitzari dagokion aurrekontua zehaztuz, eta baita plangintza hori garatzeko hitzarmenaren



sinatzaileek bakoitzak bere aldetik edota Basoen Berreskurapenerako Mahaiaren bitartez bere gain hartzen dituen betebeharrak.

Urteko plan horretan sartuko da Baso Astearen antolaketa hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, Baso Astea antolatzearekin bi aldeak ados baitaude.

Hirugarrena.- Ekintzen antolaketa elkarlanean.

Helburu estrategikoak bete ahal izateko urteroko plangintzan jasotako ekintza ezberdinak antolatuko dira, Udalak onartu ondoren. Ekintza horiek basoak berreskuratzeko mahaian planteatu eta aztertuko dira (bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa) eta, Mahaia eta ondoren Udalak onartuz gero bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hitzarmenaren sinatzaileek honako konpromisoak hartzen dituzte gutxienez:

- a) Prestaketa lanek udal langileen lana eskatuko balute, udalak bere gain hartuko lituzke aurrez antolatuta (sastrakak garbitzeko lanak, materialak eramatea, makinaria arriskutsuekin egin beharreko lanak eta abar).
- b) Komunikazioari dagokionez, Kukubaso Elkartearen arduratuko da euskarriak sortu eta zabalkundea egiteaz. Euskarri horien inprenta gastuak urteroko plangintzan jasoko dira
- c) Ekintzen exekuziora begirako zehaztapenak lotzeko ardura ingurumen teknikariak eta Kukubasok izendatzen duen ordezkariak izango dute. Interlokuzioa bien artekoa izango da.
- d) Urteko plangintzan landaketaren bat egitea aurreikusiko balitz, landaketen gastuak udalak bere gain hartuko ditu.

Edozein kasutan, hartzen diren konpromisoek udalarentzako gasturen bat badakar, gastua egin aurretik udalak onartu egin beharko du indarrean dagoen arautegiari jarraituz.

Laugarrena.- Berdintasun klausulak

Hitzarmenaren sinatzaileek berdintasunaren inguruan jarraian jasotako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dute:

- a) Kukubaso bertako basoak berreskuratzeko elkarteak sortuko dituen dokumentu zein euskarri informatibo guztietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da.
- b) Ahal den neurrian Basoen Berreskurapenerako mahaian ordezkaritza orekatua egongo da
- c) Baso jabeei zuzendutako informazio, aholkularitza zein ekimenetan estereotipo zein genero-rol tradizionalak gainditu eta gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatuko da.
- d) Kukubaso bertako basoak erreskuratzeko elkarteak antolatutako ekimen eta ekintzetan emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).
- e) Kukubaso bertako basoak berreskuratzeko elkarteak sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatuko du egiten diren estatistika, inkesta eta datu biltzaile guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.
- f) Zaintza lanak kontuan hartuta bateragarritasuna errazte aldera Kukubaso



bertako basoak berreskuratzeko elkarteak neurriak kontuan hartuko ditu.

Bostgarrena. Elkarteari finantzazioa.

Bergarako Udalak Kukubaso Elkarteari urtero 2.000 euroko dirulaguntza emango dio hitzarmen honetatik eratorritakoak diren eta urteroko plangintzan jasota dauden jarduerak egiteko.

Dirulaguntza honetaz gain Kukubasok bere ohiko jarduera aurrera eramateko dirulaguntza eskatu ahal izango du Udalak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren barruan.

Dirulaguntza hori honela ordainduko da:

2023ko dirulaguntzaren %60a hitzarmen hau eta 2023rako plana aurkeztu ondoren. Hurrengo urteetan berriz, urteko bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan. Ordainketa hauek kontura izango dira.

Beste %40a dirulaguntza zuritzeko jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu eta Udalak onartu ondoren.

Urteko ekintza plana burutzeko emandako dirulaguntza zuritzeko hurrengo urteko urtarilaren 31a baino lehen Kukubasok honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea
- b. Balantzea izandako diru-sarrera eta gastuak jasotzen dituen eta elkarteko ordezkariak sinatuta (izen abizenak eta NAN zenbakia adieraziz)
- c. Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak
- d. Gastuen zerrenda sailkatua eta ekintzaren antolaketa sortutako gastuen justifikazioa. Fakturak edo ordainagiriak Kukubasoren izenean aurkeztu behar dira. Ordainagirien kasuan dirua jaso duenaren izen abizenak, NAN zenbakia eta diru kopurua zehaztu behar dira agiri edo errezero originalekin edo originalen kopia konpultsatuekin.
- e. Diru-sarreraren zerrenda sailkatua
- f. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.).
- g. Jardueraren balorazioa.
- h. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.

Seigarrena.-

Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua aurkeztutako aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, Udalak eskatu ahal izango du diru-ekarpenaren zati bat itzultzea. Txosten ekonomiko horretan Kukubasok urteko ekintza plana burutzeko izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin Kukubasok gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu, Udalak eskubidea izango du diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen



berririk egingo.

Udalak Kukubasori egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Zazpigarrena.-

Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

Zortzigarrena.-

Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea. Udalak diruz lagundu duen jarduera burutzeko Kukubasok beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, Kukubasok berehala jakinarazi beharko dio Udalari eta edozein kasutan, azken zatia ordaindu baino lehen.

Bederatzigarrena.-

Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamargarrena.-

Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Hamaikagarrena.- Jakintzaren jabetza eta elkarlanerako borondatea

Jabetza librean oinarrituko da elkarlan honetatik sortutako jakintza guztia: martxan





Bergarako
Udala

jarritako egitasmo berriena, kudeaketari dagokiona etab. Hau da, unean uneko jakintza guztia partekatuko da helburu estrategikoekin bat egiten duten eta interesa duten beste erakunde, elkarte, edota kolektiboekin. Hortaz, laguntza eskainiko zaie eskualdeko zein sektoreko bestelako ekimenei, eta eskura jarriko zaie elkarlan honen bidez sortutako jakintza. Basoen Berreskurapenerako mahaiak landuko ditu jakintza hau partekatzeko bideak.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia eta luzapenak.

Hitzarmen honek parte hartzen duten alde guztiek sinatzen dutenetik aurrera izango ditu ondorioak, eta hurrengo lau urteetan egongo da indarrean, eta 4 urtez luzatu ahal izango da amaitu aurretik espresuki adostuz gero.

Hamahirugarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Hitzarmen honen edukia aldatu beharra balego Udalak erabakia hartu beharko du indarrean dagoen araudiari jarraituz.

Sinatzaileak beharturik daude hitzarmen honen xedea, izaera edo baldintzak alda ditzakeen edozein gertaera berariaz eta berehala jakinaraztera.

Hamalauugarrena.-Hitzarmena bertan behera uztea.

Alde sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak errekerimendua jakinarazi ahal izango dio hilabeteko epean betebeharrak eta konpromiso horiek bete ditzan. Errekerimendu hori Basoen Berreskurapenerako Mahaiari ere jakinaraziko zaio. Emandako epea igarota, errekerimenduari erantzun ez bazaio, horren berri Basoen Berreskurapenerako Mahaiari eman ondoren, hitzarmena bertan behera geratuko da.

Hamabostgarrena.- Araudi aplikagarria

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, dirulaguntzari dagokionean honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Eta erabat ados daudela adierazteko, Gorka Artola jaunak eta Ainhoa Agirrebeña andreak, hitzarmen honetan parte hartzen duen alde bakoitzaren izenean, hitzarmen hau sinatu dute, idazkariaren aurrean.

Izpta.: Gorka Artola

Izpta.: Ainhoa Agirrebeña

Izpta.: Maria Concepción Ugalde

